



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

## **Bizkaiko Batzarretako Iraskunde batzordeak ez dau onartu Usansoloren segregazinarako aukerea emoten eban Foru Arau proiektua**

Bilbon, 2015eko martiaren 17an.

Gelditu egin da, momentuz, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Araua aldatzeko Foru Arauaren proiektua. Iraskunde Batzordeak, oposizino osoaren (EH Bildu, PSE-EE eta PP) kontrako botoakaz atzera bota dau, Usansolo etorkizunean segregatuko bidea zabalik itxiko leuken arauzko proiektuaren artikulua moltso osoa. Eztabaidea datorren astean errepikauko da, datorren eguaztenerako, martiaren 25erako, aurreikusita dagoan legealdiko azkenengo osoko batzarrean. Une horretan egiaztatu ahal izango da Batzarrek gaur batzordeak emon dauen kontrako erespina berresten dauen ala atzera egiten dauen, Foru Aldundiak aurkeztutako foru arau proiektua onesteko, une honetan dagoan moduan edo hiru taldeetako baten adostasuna lortuko dauen aldaketaren bategaz, EAJ-PNV taldearenaz gain.

Batzordeak erakutsi dauen kontrako jarrera, oposizino hiru taldeek PSE-EE-ren zuzenketa-eske baten alde agertu diranean sortu da. Zuzenketa-eske horrek ia guztiz botaten ebazan atzera Aldundiak aurkeztutako jatorrizko testuan sartzen ziran aldaketa guztiak. Testu horrek “Bizkaian segregazino prozesuak posible egin behar ebazan” 2.500 biztanletik gorako uriguneetan, Unai Rementeria Lehendakarietzako Foru diputatuak eztabaidaren hasieran adierazo dauen moduan.

Batzarretako Euzko Abertzaleak taldeak (EAJ-PNV) boto partikularra emon dauenez eta batzarretako taldeak aurkeztutako zuzenketa-eskeak osoko batzarrerako erreserbau dituenaz, datorren astean Gernikan egingo dan osoko batzarrean ia eskema berbera errepikauko da. Osoko batzar horretan azken testua onartu edo baztertu egingo da. Bertan aurkeztuko dan testuari, EH Bilduren aldeko eretxia jaso dauen jeltzaleen zuzenketa-eske transakzional bat gehituko jako, udalerrri batek beste bategaz bat egin gura dauen balizkoetan be herritarrei galdeketa egin ahal izateko, eta ez segregazinoen balizkoetan bakarrik.

Zuzenketa-eskeak defendiduteko orduan, batzarretako talde bakotxak, Lurralde Mugapeei buruzko araudi barriaren aldaketei jagokezan argumentu nagusiak defendidu ditu. Holan, PP taldeak, EAJ-PNV-k eta EH Bilduk onartu ez daben Osotasunerako zuzenketa-eskea defendidu dau, segregazino barrien eta egoera jakin baterako “ad-hoc” aldaketak egitearen kontra dagoalako, hori “ez dalako ona ez Usansolorako, ez Galdakaorako, ezta Bizkairako be”, esan dau Carmen Carrón batzordekideak.

Popularren moduan, PSE-EE-k be esan dau EAJ-PNV-k arau horren inguruan hiru urtetan izan dauen erespide aldaketearen errazoa udal hauteskundeak gertu dagozala dala. Iñaki Egaña bozeroale sozialistak, planteautako aldaketak kentzea eskatu dau, eta arauak Xedapen Iragankor bat jaso daiala, Usansolok 80ko hamarkadan hasitako espedienteari amaierera emoteko aukerea euki daian, lurraldeko 113. udalerrria izango litzatekena sortzeagaz ados egon ez arren. Kritikau dauenez, arau proiektuak, une honetan planteauta dagoan moduan, segregazino barriari “eskua zabaltzen deutse”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

EH Bilduk, bere aldetik, segregazino prozesu osoa zainduko dauen batzorde kudeatzailea sortzea komenigarria izango litzatekela esan dau, Usansolo Herria plataformak eskatu dauenagaz bat etorrira. Irune Soto EH Bilduko bozeroaleak autortu dauenez, hor dago “gaiaren gako”. Jeltzaleei gaia “barriro pentsetea” eskatu deutse, koalizino abertzalearen aldeko botoa gura badabe, ez diralako ados agertu prozesu osoa zuzenduko dauena Udaletik sortutako batzorde mistoa izateagaz, “Galdakaoko modus operandia ikusita”.

EAJ-PNV-ko Jon Andoni Atutxak, bere aldetik, uste dau bere taldearen jarrera politikoa argi eta garbi geratu zala “Usansolo usansolotarrek gura dabena izango dala” adierazo ebanean. EH Bilduri erantzunez, hiru bider be errepikau dau batzorde kudeatzailearen sorkuntzea ez dala oztopoa izan behar, foru arauak “ez dauelako horretarako trabarik jarten”. Udalbatzak “segregazino prozesu hori diseinetako eta gero gura dauen moduan antolatzeke aukerea dauka”, esan dau Atutxak.

#### BIZKAIKO UDALEN FINANTZA EGOEREA

Unai Rementeria Lehendakartzako diputatua EH Bilduk eskatuta agertu da batzordean, gaiztasun ekonomiko “larriak” dituen udalerrien egungo ekonomia eta finantza egoerari buruzko informazioa emoteko. Foru Aldundiak hiru Dekretu onetsi ebazan, bakotxaren beharren arabera laguntzak emoteko.

Aldundiko arduradunak jakinarazo dauenez, gai horri jagokonez “ez dago aldaketarik”, eta abenduaren 23an egin eban beste agerraldi batean esan ebana aitatu dau. Arazo ekonomikoak daukiezan udalerriek euren likidazioak bialtzeko zain dago Aldundia, eta hori egiteko epea datorren apirilaren 30ean amaitzen da.

Rementeriak gogoratu dauenez, hautemandako gaiztasunak eukiezan 13 udalerrietatik, 5 zorduntze larrian dagoz oraindino, ohiko diru-sarrerengaitiko aurrekontuaren %60tik gorako mailan. Udalerriok honeek dira: Alonsotegi, Bakio, Dima, Errigoiti eta Urduña. Barriro esan dau Bizkaiko udalerrri gehien finantza egoera “erdi ona edo oso ona” dala, eta gaiztasun gehien daukiezan bost udalerrri horreek 2019. urteko epea daukiela euren zorduntzea zuzentzen joateko.

#### KUTXABANKEN ETORKIZUNA

EH Bilduk Kutxabanken etorkizunari buruz galdetu deutso foru bozeroaleari. Gizarte ekintza eusteari eta euskal banketxeak etxetik kaleratzeen aurrean daukan politikeari buruzko itaunak egin deutzaz Aldundiko ordezkariari, bere esanetan, Euskadiko “5 kasuetatik 2ren” erruduna Kutxabank dalako. Bere esku-hartzean, ganerako taldeek erakundearen kontsejuan erabagiak hartzeko gaitasuna alkarren artean banandu dabela salatu dau, eta talde horreek “ez dabela Kutxabanken kontrol publikorik gura” ganeratu dau.

Rementeria esanetan, Kutxabankek, etorkizunean be, “herrialde honetako pertsonen, familien eta enpresen zerbitzura” jarraitu behar dau, bere egoitzeari eta gizarte ekintzari eutsiz. EH Bilduren bozeroalea kritikau dau, “pribatizazioaz, osteaz, pelotazoaz edo gizarte ekintza desagertzeaz” berba egitegaitik. Diputatuak azpimarratu dauenez, 2014an “54 milioi eurotan”



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

handitu zan gizarte ekintzara zuzendutako diru-kopurua, 2013. urteagaz alderatuta, “%66 gehiago”. Rementeriak eskaerea egin deuto koalizino abertzaleari, “esandako guzur guztiengaitik eta egindako kalte guztiarengaitik” parkamena eskatu daian. “Kutxabanken etsai nagusia zeuok izan zarie. Kutxabankegaz lehiatzen diran erakundeek baino askoz be kalte gehiago egin dozue”, esan dau.

Kritikak popularren eta sozialisten aldetik be heldu dira. Jesús Isasi PP-ren bozeroalearen esanetan, EH Bilduren helburua “urak lohitzea eta zikintzea da”, banketxe batek modu jakin batean funtzionau daian lortzeko. “Hori errepublika bananeroetako gauzea da”, esan dau.

Egaña sozialistak esan dauenez, EH Bilduren adierazpenak eta salaketak “nahaste-borrastea” baino ez dira, “mundu guztia” inpliketako asmoz, “gu herria gara eta ganerako guztiak kastea” esanez moduan. Batzarretako PSE-EE taldeko bozeroaleak konpromisoa hartu dau, Kutxabanken kontrol publikoa eta gizarte ekintzea “ahalik eta handienak” izan daitezana, eta Kutxabankek eragindako etxeetatik kaleratzeko espedienteak bertan behera ixteko.

Lorea Bilbao EAJ-PNV-ko bozeroalea, bere aldetik, pozik agertu da, Kutxabank erakunde “serioa eta errentagarria” dalako, eta erakundeko zuzendaritza taldeko kideen eta beharginen lanaren aurrean “errespetua” eskatu dau. “Kutxabankek euskalduna izaten jarraitzea, bere gizarte ekintzea aurrera erotea eta Euskadiko egitura ekonomikoan parte hartzea gura dogu”, esan dau.

#### HITZARMENAREN BERRESPENA

Batzordeak aho batez berretsi dau bitarteko elektronikoen bidez informazioa trukatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko lankidetzaren Hitzarmena.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **La comisión Institucional de Juntas Generales rechaza el proyecto de Norma Foral que posibilitaba la segregación de Usansolo**

Bilbao, a 17 de marzo de 2015

Frenazo momentáneo al proyecto de modificación de la Norma Foral 9/2012, de 5 de diciembre, de Demarcaciones Territoriales de Bizkaia. La Comisión Institucional ha rechazado hoy con los votos en bloque de toda la oposición (EH Bildu, PSE-EE y PP), el articulado completo del proyecto normativo que hubiera despejado el camino para la futura segregación de Usansolo. El debate se repetirá la próxima semana en el último pleno de la legislatura, previsto para el próximo miércoles, día 25. Será el momento para comprobar si el hemiciclo ratifica el dictamen negativo salido hoy de la comisión o bien si da marcha atrás para aprobar el proyecto de norma foral presentado por la Diputación en sus términos o con algún cambio que satisfaga el apoyo de uno de los tres grupos, además del PNV.

La negativa de la comisión se ha empezado a gestar cuando los tres grupos de la oposición han apoyado una enmienda del PSE-EE que venía a suprimir prácticamente todas las modificaciones que se incorporaban en el texto original presentado por la Diputación, el cual iba a “posibilitar procesos de segregación en Bizkaia” para núcleos urbanos con más de 2.500 habitantes, como ha explicado el diputado foral de Presidencia, Unai Rementería, al inicio del debate.

La emisión de un voto particular del grupo juntero Nacionalistas Vascos (PNV) y la reserva por parte de los grupos junteros de las enmiendas presentadas, repetirán prácticamente el mismo esquema la semana que viene en Gernika, en un pleno que aprobará o no el texto final con el añadido únicamente de una enmienda transaccional de los jeltzales, apoyada por EH Bildu, para ampliar la casuística a la hora de realizar consultas ciudadanas a supuestos en los que un municipio se quiera agregar a otro, y no solamente en los supuestos de segregaciones.

A la hora de defender las enmiendas, los grupos junteros han repetido sus principales argumentaciones en relación a la modificaciones de una nueva normativa de Demarcaciones Territoriales. Así, el PP ha defendido su enmienda a la Totalidad –rechazada por PNV y EH Bildu- al estar en contra de nuevas segregaciones y a que se hagan cambios “ad-hoc” para una situación concreta, porque “no es bueno ni para Usansolo, ni para Galdakao, ni para Bizkaia”, ha mantenido su juntera Carmen Carrón.

Al igual que los populares, el PSE-EE ha sostenido que el cambio de criterio del PNV respecto a la norma en tres años, se debe a la cercanía de las elecciones municipales. El portavoz socialista, Iñaki Egaña, ha pedido la retirada de las modificaciones planteadas y que la norma incorpore una Disposición Transitoria que permita a Usansolo terminar el expediente que inició en los años 80, pese a no estar de acuerdo con el nacimiento de lo que sería el municipio número 113 del territorio. Ha criticado que el proyecto de norma como está planteado “abre la mano” a nuevas segregaciones.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Por su parte, EH Bildu ha puesto el acento en la conveniencia de que se pueda crear una comisión gestora que vele por todo el proceso de segregación, en línea a lo solicitado por la Plataforma Usansolo Herria. Como ha reconocido la portavoz de EH Bildu, Iruñe Soto, aquí está el “quid de la cuestión”. Ha pedido a los jeltzales “repensar” el tema si quieren su apoyo, ya que se han negado a que una comisión mixta creada desde el ayuntamiento dirija todo el proceso “viendo el modus operandi en Galdakao”.

Por su parte, Jon Andoni Atutxa, del PNV, cree que la postura política de su grupo quedó clara cuando manifestaron que “Usansolo sería lo que quieran los usansolotarras”. Contestando a EH Bildu, ha reiterado hasta en tres ocasiones que la creación de la comisión gestora no debe ser un obstáculo, ya que el proyecto de norma foral “no se lo impide”. El pleno municipal “puede diseñar ese proceso de segregación y organizarse luego como quiera”, ha sostenido Atutxa.

#### SITUACIÓN FINANCIERA DE LOS AYUNTAMIENTOS DE BIZKAIA

Por su parte, el diputado de Presidencia, Unai Rementeria, ha comparecido a petición de EH Bildu para informar sobre la situación económico-financiera actual de los municipios que pasan “graves” dificultades económicas, y por los que la Diputación llegó a aprobar tres Decretos para otorgarles diferentes ayudas en función de sus necesidades.

El responsable foral ha manifestado que en relación a este asunto “no hay cambios” y se ha remitido a lo que dijo en otra comparecencia realizada por él mismo el pasado 23 de diciembre, ya que está a la espera de que los municipios con problemas económicos envíen sus liquidaciones, y tienen de plazo hasta el próximo 30 de abril.

Rementeria ha recordado que de los 13 municipios con dificultades detectados, 5 se encuentran todavía con un endeudamiento grave, por encima del umbral del 60% del presupuesto por ingresos corrientes. Estos serían: Alonsotegi, Bakio, Dima, Errigoiti y Orduña. Ha vuelto a manifestar que la salud financiera de la mayoría de los municipios vizcaínos es “medio buena o muy buena” y que estas cinco localidades que tienen más dificultades tienen de plazo hasta el año 2019 para corregir paulatinamente su endeudamiento.

#### FUTURO DE KUTXABANK

EH Bildu ha preguntado al portavoz foral por el futuro de Kutxabank. Ha cuestionado al representante de la Diputación por el mantenimiento de la obra social y la política de la entidad vasca en cuanto a los desahucios al hacerles culpables de “2 de cada 5 casos” en Euskadi. En su intervención ha llegado a denunciar que el resto de grupos se han repartido la capacidad de decisión en el consejo de la entidad, denunciado además que los demás grupos “no quieren un control público de Kutxabank”.

Para Rementeria, Kutxabank tiene que seguir en el futuro “al servicio de las personas, las familias y las empresas de este país” manteniendo su sede y su obra social. Ha criticado a la portavoz de EH Bildu por hablar de “privatización, expolio, pelotazo o desaparición de la obra social”. El diputado ha destacado que en 2014 se ampliaron en “45 millones de euros” el importe destinado a obra social con respecto a 2013, “un 66% más”. Rementeria le ha pedido a la coalición abertzale que “pidan perdón por todas las mentiras y todo el daño que han hecho. El



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

peor enemigo de Kutxabank han sido ustedes. Han hecho mucho más daño que las entidades de la competencia”, ha dicho.

Las críticas han llegado también desde las filas populares y socialistas. Para el portavoz del PP, Jesús Isasi, la intención de EH Bildu es “enfangar y enturbiar las aguas” para conseguir que un banco funcione de una manera determinada. “Eso es de república bananera”, ha afirmado.

El socialista Egaña ha tachado las declaraciones y acusaciones de EH Bildu de “batiburrillo” con una intención de implicar “a todo el mundo” como diciendo “nosotros somos el pueblo, y los demás la casta”. El portavoz del grupo juntero del PSE-EE se ha comprometido a que el control público y la obra social de Kutxabank sea “el mayor posible” y a que se suspendan los expedientes de desahucio en Kutxabank.

A su vez, la portavoz del PNV, Lorea Bilbao se ha alegrado de que Kutxabank sea una entidad “seria y rentable” y ha pedido “respeto” para la labor de los equipos directivos y profesionales de la entidad. “Queremos que Kutxabank siga siendo vasca, que desarrolle su obra social y que participe en el tejido económico de Euskadi”, ha dicho.

#### CONVENIO RATIFICADO

La comisión ha ratificado por unanimidad un convenio de colaboración entre la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, para el intercambio de información por medios electrónicos.